

Diru sarrerei dagokionez, honela antolatuko gara:

Astero kuota bat ordaindu beharko da. Asteko bost egunetan ekintzak egongo dira, eta larunbat batzuetan irteerak antolatuko ditugu. Ez dago zertan bi egun edo gehiago jarraian etorri beharrik, egun solteetan etorri daitezke haurrak eta familiak.

Egun 1	2 egun	3 egun	4 egun	5 egun
25€	40€	65€	80€	100€

*Larunbatetan irteerak egonez gero, dohainekoa izango litzate, baldin eta gutxienez 2 egun etorri izan bada astean zeharreko ekintzetara. (Autobusa aparte ordaindu beharko da)

Bestalde, [gobernuak eta estatuak eskaintzen dituen diru laguntzak](#) eskatuko genituzke, beste diru sarrera mota bat izateko.

Gure ekintzetarako gehieneko plaza 25 pertsonetako izango da, horregatik lehenengo urtean 15 pertsona inguru gerturatuko direla suposatuko dugu. 38 astez jardungo ginateke urte osoan zehar, gabonetako bi asteak, udako bi hilabete (uztaila eta abuztua) eta Aste Santuko bi asteak oporrak izanda.

Hurrengo taulan aukeratutako pertsona edota bezero kopuruak asmatutakoak dira, ezin dugulako ziurtasunez jakin zenbat bezero edukiko ditugun egun bakoitzean, diru sarreretara hurbilketa bat egiteko.

Datu horiek kontuan izanda, honako diru sarrerak lortuko genituzkeela urtean kalkulatzeko dugu kasu hipotetiko baten pertsona kopuru hauek egun kopuru hauek hartu ez gero:

	Pertsona kop.	Egun kop.	Guztira ordaintzeko
	7 pertsona	5 egun	700€
	5 pertsona	4 egun	400€
	3 pertsona	3 egun	195€
Guztira	15 pertsona		1265€
Urtean guztira	1265 · 38 aste = 48.070€		

Diru laguntzak	140.369.00€
-----------------------	-----------------------------